

Hegoaldeko ikasleek OCDEko batez besteko maila lortu dute PISA azterketan

Ikasleen gaitasuna neurtu dute zientzietan, matematiketan eta irakurketan

JAKES GOIKOETXEA
Donostia

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 15 urteko ikasleek OCDEko batez besteko maila dute, gutxi gorabehera, zientzietan, matematiketan eta irakurketan; Nafarroako batez bestekoa baino gorago daude zientzietan eta matematiketan, eta beharago irakurketan; Arabakoak, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak, berriz, batez bestekoa baino gorago daude matematiketan eta beharago zientzietan eta irakurketan.

Hala erakusten du OCDE Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak herenegun argitaratu zuen PISA txostenak. OCDEk hiru urtetik behin egiten du ikerketa ikasleen zientzia, matematika eta irakurketa maila neurtzeko. Aurten 57 herrialdeetako ikasleen maila neurtu du. Hego Euskal Herriko 5.519 ikasle parte hartu dute, sare eta hizkuntza eredu guztietakoek, gehienak DBHko laugarren mailakoak.

Zientziak

Nafarroako ikasleek 511 puntuko puntuazio orokorra lortu dute; Arabakoek, Bizkaikoek eta Gipuzkoakoek, berriz, 495. OCDEko he-

■ PISA, batez besteko emaitzak

OCDE: Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea

Zientziak

	OCDE: 500
Finlandia	563
Hong Kong (Txina)	542
Kanada	534
Estonia	531
Japonia	531
Zeelanda Berria	530
Alemania	516
Erresuma Batua	515
Suitza	512
Nafarroa	511
EAE	495
Frantzia	495
AEB	489
Espainia*	488

* Espainiako batez bestekoetan sartuta daude Hego Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako eta Galiziako emaitzak ere.

(TURRIA: OCDE)

Irakurketa

	OCDE: 492
Korea	556
Finlandia	547
Hong Kong (Txina)	536
Kanada	527
Zeelanda Berria	521
Polonia	508
Erresuma Batua	495
Frantzia	488
EAE	487
Norvegia	484
Nafarroa	481
Portugal	472
Lituania	470
Espainia*	461

Matematikak

	OCDE: 498
Taipei (Taiwan)	549
Finlandia	548
Hong Kong (Txina)	547
Korea	547
Herbehereak	531
Japonia	523
Nafarroa	515
Danimarka	513
Eslovenia	504
EAE	501
Frantzia	498
Norvegia	490
Espainia*	480
AEB	474

rrialdeetako batez bestekoa 500 puntukoa izan da.

Azterketan gaitasun zientifikoa neurtu dute: «Zientzia ezagutza erabiltzeko, galderak identifikatzeko eta frogetan oinarritutako ondorioak ateratzeko gaitasuna. Gaitasun horren helburua ondokoa da: bai naturaren mundua, bai gizakien jarduerak mundu horretan sortzen dituzten aldaketak ulertzen eta horren inguruan erabakiak hartzen laguntzea».

Zientzia gaitasuna neurtzeko sei mailako sistema batean Hego Euskal Herriko ikasleek, batez beste, hirugarrena lortu dute.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleen %79,9k maila ertaina lortu dute, eta %15,7k maila baxua. Maila baxua lortu dutenetatik %3,2 ez dira oinarritzko mailara iritsi. %0,3k bakarrik lortu dute bikaintasuna.

Nafarroan ikasleen %80k lortu dute maila ertaina, %19,6k baxua eta %0,3k bikaina. Maila baxua eman dutenetatik %2,0 ez dira iritsi oinarritzko mailara.

Maila ertainetako ikasleen portzentajea ikusita, Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak nabarmendu dute bertako hezkuntza sistemak bidezkoak direla.

PISA 2003an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak erabaki zuen D ereduko ikasle bakoitzak proba familiakoekin erabiltzen zuen hizkuntzan egitea. Iaz D ereduko 2.003 ikasleetatik 1.468k egin zuten pro-

ba gaztelaniaz eta 535ek euskaraz. Gaztelaniaz egin zutenek 492,4 puntu lortu dituzte, eta euskaraz egin zutenek 495,1.

Irakas Sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI) nabarmendu du gizarte mailen arteko aldeak daudela ikasleen zientzietako errendimenduan eta ikasleen baldintza ekonomikoak, sozialak eta kulturalak direla desberdintza gehienek arrazoiak. «Aldagai horien eragina alde batera uzten badugu, desberdintasun horietako batzuk desagertu egingo dira. Gauza bera gertatuko da ez badugu zentroari dagokion indize soziala, ekonomikoa eta kulturala kontuan hartzen».

Matematikak

Matematiketan Nafarroako ikasleek 515 puntu lortu dituzte eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako

ikasleek, berriz, 498. OCDEko herrialdeetako batez bestekoa 498 puntukoa izan da. Zientzietan bezala, Hego Euskal Herriko ikasleen batez besteko puntuazioa sei mailako sistema batean hirugarrena da.

Nafarroan ikasleen %81,3k lortu dute maila ertaina, %15,4k maila baxua eta %3,2k maila bikaina. Ikasleen %4,4ez dira iritsi oinarritzko mailara.

Arabak, Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, ikasleen %81,4k lortu dute maila ertaina, %16,9k maila baxua eta %1,6k bikaina. Maila baxua lortu dutenen artean %5,1 ez dira iritsi oinarritzko mailara. Proba euskaraz egin duten D ereduko ikasleek 512,4 puntu lortu dituzte eta gaztelaniaz egin dutenek 502,7.

Irakurketa

Hego Euskal Herriko ikasleek OCDEko herrialdeen batez besteko puntuazioaren azpiko maila lortu dute: OCDEko herrialdeen batez bestekoa 492 puntukoa izan da, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleena 487 puntukoa eta Nafarroakoena 481ekoa. Bost mailako gaitasun sisteman hirugarren maila lortu dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arabera, maila hori «harriarria da hizkuntza ofizial bi dituen erkidego batentzat». Nafarroako Gobernuak programa bat abiatuko duela iragarri du, adierazle hori hobetzeko.

Parte hartu duten herrialde guztietan neskek mutilek baino emaitza hobek lortu dituzte. Aldea nabarmena da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleen kasuan: neskek 506 puntu lortu dituzte eta mutilek 469.

Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak Interneten jarri ditu azterketaren emaitzak:

www.pisa.oecd.org

EAEko Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko erakundeak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako emaitzak eskaini ditu: www.isei-ivei.net



Jaurlaritzak 1.300 milioi euro aurreikusi ditu 2007-2010 Unibertsitate Planerako

ERREDAKZIOA
Donostia

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1.271.721.808 euro erabiliko ditu Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako 2007-2010 Unibertsitate Plana gauzatzeko. Horren bidez, unibertsitate jarduerak eragiten dituen gastuei aurre egingo die eta azpiegiturak finantzatzeko dituzte.

Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak Hezkuntza Sailetik 11.650.000 euro jasoko dituzte bakoitzak. Jaurlaritzak azaldu duenez, EHUrentzat ez ezik Euskal Unibertsitate Sistema-

ko unibertsitate pribatuentzat ere finantziaketa esparrua sortzea du helburu egitasmoak. Halaber, Europako Goi Hezkuntzaren Espazioa eta Europako Ikerketaren Espazioa egokitzeko prozesua sustatu nahi du Unibertsitate Planak.

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BERRITU. Ton-txu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak jakinarazi du egitasmoaren ardatza zientzia eta teknologia ekoizpena berritzea eta handitzea izango dela. «Unibertsitatearen eta enpresen arteko lankidetzak areagotzeko eta euskal ikerketak nazioarera zabaltzeko

ekintzak eta programak sustatuko ditugu», zehaztu du Camposek.

EHUn 310 irakasle eta ikertzaile gehiago izango dira 2005-2010 bitartean, eta administrazioan eta zerbitzuetan 205 lanpostu berri sortuko dira. Unibertsitatearen eta administrazioaren baliabideak kudeatzeko «garrantasuna» bermatzeko bideak jarriko direla gaineratu du.

Irakasleak euskalduntzea eta euskara ikasteko eskaintza handitzea «etorkizuneko erronkatzat» jarri du Camposek. Unibertsitate Planaren beste helburu bat irakasle Europako Batasunaren ikuspegitik prestatzea izango da.